

## PRENTSARAKO OHARRA

18/07/24

### **Gernikako Batzarretxea, atzerriko bisitarien turismo erakarpen gune nagusien artean finkatu da**

Lehenengo hiruhileko bisitarien kopuruek baieztu egin dabe, barriro be, Gernikako Batzarretxeak bertako biztanleentzat eta, batez be, atzerritarrentzat, daukien erakargarritasuna. Urteko lehenengo sei hilebeteetan, Bizkaiko Batzarretako egoitzak 60.851 bisita jaso ditu, eta horreetatik %33,17 atzerritik etorri dira.

Zenbaki horreek indartu egiten dabe Gernikako Batzarretxea eta Arbolea Bizkaia bisitetan daben persona askorentzako derrigorrezko geldialdia bilakatu dirala. Alde batetik, oraindino be esanguratsua da Euskal Herriko lurraldeetatik etorri dan bisitari kopurua, 14.596 persona, hain zuzen be. Halanda be, azken urteetan Estatu osoko eta bost kontinenteetako turisten gorako joerak argi eta garbi erakusten dau leku hori mundu osoan lortzen ari dan gero eta karga sinboliko handiagoa.

Rankingari jagokonez, Estatu barruko turismoa da, oraindino, turismo iturri nagusia, erregistrautako guztiaren %42gaz. Urtarriletik bagilera Batzarretxera etorri ziran 26.069 personatatik, 5.809 Kataluniatik etorri ziran, 4.279 Madrilgo erkidegotik eta 3.326 Andaluziatik.

#### **EUROPAKO ETA ESTADU BATUETAKO BISTIARIEN MARKA BARRIA**

Atzerriko bisitarien jagokonez, Europako herrialde handiak dira, oraindino be, bisitari gehien jatorrizko herrialdeak, eta orain arteko marka gainditu dabe, 14.271 personagaz. Ohikoa danez, eta gertu dagonez, zerrenda horren lehenengo lekuan Frantzia dago; ondoan daukagun herrialdeko 4.385 bisitari hurbildu dira Batzarretxera lehenengo sei hilebete horreetan. Horren ostean, tarte apur batera, Alemania dator, 2.491 bisitarigaz, Ingalaterra 1.118gaz eta Italia 645gaz.

Lehenengo sei hileko honetan Estatu Batuetako turista kopuruak be gora egin dau. Estatu Batuetatik etorritako 2.786 personak bisitatu dabe Bizkaiko Batzarren egoitza; kopuru hori, urte honetan Amerika osotik etorri diran bisitari guztien (4.385) erdia baino gehiago da. Beste maila batean dagoz Asiako (1.411), Afrikako (28) eta Ozeaniako (92) turistak.

NOTA DE PRENSA

24/07/18

## **La Casa de Juntas de Gernika se consolida como una de las principales atracciones turísticas para visitantes extranjeros**

Las cifras de visitantes del primer semestre han vuelto a constatar el poder de atracción que posee la Casa de Juntas de Gernika para autóctonos y, especialmente, para foráneos. En estos seis primeros meses del año la sede parlamentaria vizcaína ha registrado un total de 60.851 visitas, de las cuales el 33,17% provienen del extranjero.

Estos números refuerzan la idea de que la Casa de Juntas y el Árbol de Gernika se han convertido en una parada obligada para muchas personas que visitan Bizkaia. Por un lado sigue siendo significativo el número de personas provenientes de distintos territorios de Euskal Herria, el cual asciende a 14.596 personas. Sin embargo la tendencia ascendente de turistas de todo el Estado y de los cinco continentes en los últimos años constata la elevada carga simbólica que va adquiriendo este lugar por todo el mundo.

En lo que al ranking se refiere, el turismo estatal vuelve a destacar como principal fuente de turismo con un 42% del total registrado. De las 26.069 personas que desde enero a junio se acercaron a la Casa de Juntas, 5.809 lo hicieron desde Cataluña; 4.279 desde la Comunidad de Madrid; y 3.326 desde Andalucía.

### **RECORD DE VISITANTES EUROPEOS Y ESTADOUNIDENSES**

En cuanto a los visitantes extranjeros, los grandes países europeos continúan siendo los principales emisores logrando batir un record con 14.271 personas. Como es habitual, dado también por su cercanía, esta lista se encuentra encabezada por Francia; un total de 4.385 personas provenientes del país vecino se han acercado a la Casa de Juntas en estos primeros seis meses. Le siguen con más margen de distancia, Alemania con 2.491 personas, Inglaterra con 1.118 visitantes, e Italia con 645.

Durante este primer semestre se ha percibido también un aumento en el número de turistas estadounidenses. Un total de 2.786 personas provenientes de EE. UU han visitado la sede parlamentaria vizcaína; esta cifra supone más de la mitad de visitantes americanos en los que va de año (4.385). En otro nivel se encuentran las y los turistas asiáticos (1.411), africanos (28) y de Oceanía (92).